

1 Hartzaren txintxa

Hartzaren txintxa

(lehen zatia)

*Anttonen herrian elürra mara-mara ari da.
Aitak Anttoni galtegiten deio oihanealat joaitea
egürkara.*



Antton oihanean barna badoa, saskia bizkarrean. Egürra bil eta saskian ezar, bidetik hürüntzen da. Elürra ari da, gero eta azkarrago. Aizeak, hüstü zorrotzean, elür lüma lodiak kürübilloan altxatzen dütü. Zühaintzen hüstüek düründatzen düe oihanean, oihüak balira bezala. Anttonen herexak ezabatürik dira. Mutikoa oso galdürik da.

? Testua entelega ezazü.

1 - Üngüra itzazü elür tenpesta dela erakusten düen hitzak.
Ondotik kopia itzazü.

2 - Erranaldiak irakur itzazü eta üngüra ezazü arrapostü egokia.

Antton bidetik hürüntzen da txori baten gibeletik ebilten beita.

Xüxen

Oker

Anttonen herexak ezabatürik dira elürra ari beita.

Xüxen

Oker

Antton oso galdürik da, bere herexak ezabatürik beitira.

Xüxen

Oker



Txerka ezazü.



1 - Bigerren paragrafoan zonbat erranaldi bada?

2 - Zoin da azken herrokako lehen hitza?



3 - *kürübilloan* hitza 3 aldiz gaizki idatzirik da. Kürütxe bat ezarzü.

kürübilloan	kürübilloan	bürübilloan
kürübilloan	kürübilloan	kürübilloan
kürübillüan	kiribilloan	kürübilloan



Idatz ezazü.

1 - Hitzak idatz itzazü marrazkiaren pean.



2 - Hitz horiekin erranaldi bat idatz ezazü.

etxearen / Potikoak / dü. / egürra / berotzeko / biltzen

3 - Segida bat asma ezazü. Marrazkia egizü.

Eliür tenpesta da eta Antton oso galdiürrik da.





Hizkuntza iker ezazü

1 - Ereduan bezala egin ezazü.

Atzo denak sütondoan bildü dira.

Orai denak sütondoan biltzen dira.

Goiz hontan berokia **hartü dü.**

Orai berokia

Egüerditan Peiok mahaina **xahatü du.**

Orai Maddik mahaina

2 - Beta ezazü.

Nontik **hürrüntzen da Antton?** (bide)

Antton bidetik **hürrüntzen da.**

Nontik **hürrüntzen da aita?** (etxe)

Aita

hürrüntzen da.

Nontik **elki da erakaslea?** (eskola)

Erakaslea

elki da.

Nontik **jin da Amaia?** (Baiona)

Amaia

jin da.



Irakurketan treba zite.

1 - Testuan -tzen silabaz ürrentzen diren hitzak kopia itzazü.

2 - Ereduko silaba düen hitzak üngüra itzazü.

tza	→	hartza - herexak - hotza - altxatü - zorrotza
tzen	→	zühaintzen - altxatzen - egiten - erorten - jiten
tzi	→	etzi - hiztegia - ontzi - aztia - zortzi
	→	

3 - tz edo tx idaztez beta ezazü.



erra a ülüla hot a



stakatü dei en dü akürra

Hartzaren txintxa

(bigerren zatia)

Antton elür tenpestan galdürik da. Gaüa heltü da...

Bat-batetan elür tenpesta ülün eta gris hartan, itxüra beltz bat agertzen zaio. Mutikoa harat hüllantzen da. Botxü handi bat da.

– Pe hortan aterpe naiteke! –dio bere beitan.

Orano haboro hüllantüz, zer ikusten dü?

– Karbe bat üdüri lüke, karbe baten sargia! Hau zorte hona gaüaren igaraiteko! –erraiten dü apal.

Ordüan Antton, mütsüka, ülünpean sartzen da. Etzateko kinkan delarik, hats bero bat üsnatzen dü. Korpitz lodi eta bilotsüa haztatzen dü.

– Hartza da! Negüko loan dagoen hartza! Harekin gustüan lo eginen düt!

Antton hartzaren aztaparren artean biribilkatzen da, eta lokartzen.





Testua entelega ezazü.

- 2 - Irakur ezazü testua eta ondoko erranaldiak istoriaren ordenean zonbat itzazü.

11/11/2019

10

11

11

- 3 - Antton ez dela lotsa erakusten düan erranaldia kopia ezazü.

[illegible]



Txerka ezazü.

1 - Lot itzazü erranahi bereko hitzak.


botxüa	*	*	xantza
üsnatzen	*	*	etzateko püntüan
zorte	*	*	harria
etzateko kinkan	*	*	senditzen

2 - Testuko hirugerren erranaldia kopia ezazü.

3 - Sagüak erranaldiak millikatü dütü. Osot ezazü.

neguko roan dagoen naruza aa.





barreakin gusurrian ro egiten du.







Idatz ezazü.

1 - Hitzak idatz itzazü marrazkiaren pean.



2 - Hitz horiekin erranaldi bat idatz ezazü.

mütsüka / Antton / da. / harpean / sartzen / Ordüan



[illegible]

Ondotik, erranaldi bat idatz ezazü.

[illegible][illegible]



Hizkuntza iker ezazü.


1 - Pertsonajea mintzo da.

Libürüan so egin ondoan, pean diren erranaldiak güne egokian kopia itzazü.

- Hartzza da!
- Te hortan aterpe naiteke!

-dio bere beitan.

-oihüstatzen dü Anttonek.






Irakurketan treba zite.

r bat ikusten düt eta r gogorra entzüten düt


harpea sartzea hartza

Bi bokalen (a, e, i, o, u) artean sonüa ezagün bada, ordüan bi rr idatzi behar da.

1 - r edo rr idatz ezazü.



ha pea elü a a gia a aima



zo tzi saga oia so gina e eka

2 - Hitza üngüra ezazü r gogorra entzüten düzularik.

artean - oparia - hortza - bürua - arma


arkatza - erori da - hartza - zortea - hori - berria

lokartzzen da- askaria - hortzak - arranoa - ageri

agertzen

Hartzaren txintxa

(hirugerren zatia)




Biharamenean ekiak hartza iratzarrarazten dü. Antton atzamaiten dü eta bizkarreala igaraiten.

Hartza torpeki elkitzen da karbe zilotik, mutikoa, ahal düan bezala, biloer lotzen zaielarik.

Bat-batetan, hartza eküratzen da, mütürra ekiari бүрүз altxatzen dü eta animaleko үzkerra egiten. Üzkerraren burrunba zabaltzen da, oihanean, herrian, eskualdean, lürrikaren ühaina bezala. Antton irailirik da. Zühaintzetako elürra ateka erorten da. Oihaneko kabaleak, harritürik, ziloetarik elkitzen dira. Txoriak, moskoaren joitez, gordagiatik kanpo mentüratzen dira. Lantare elibatek, erdi iratzarririk, elür estalgia zilatzen düe, berotarzün txerka.

Eta hartz үzkerraren burrunba herrialä heltü delarik, zer iratzargailüa!





? Testua uler ezazu.

1 - Zoin da zati hontako gertakari nausia? Hitza edo hitz multxoa üngüra ezazü eta kopia.

2 - Üzkerraren burrunba gero eta hürrünago hedatzen da. Ediren itzazü horren erakusle diren hitzak, eta kopia itzazü.

3 - Zer agitzen zaio Anttoni? Arrapostüa idatz ezazü.

4 - Erranaldien hastapenak eta ürrerentzeak lot itzazü.
(Lagüntzeko, testua hartzen ahal düzü.)

Zuhaintzeetako elürra	*	*	elür estalgia zilatzen düe.
Txoriak gordagietarik kanpo	*	*	ateka erorten da.
Oihaneko kabaleak	*	*	mentüratzen dira.
Lantare elibatek	*	*	ziloetarik elkitzen dira.



Txerka ezazü.

1 - Hirugerren herrokako lehen hitza kopia ezazü:
Zer erakusten dü?

2 - Zonbat hitz bada peko erranaldian?


Zühaintzetako elürra ateka erorten da.

3 - **burrunba** hitza hiru aldiz gaizki idatzirik da. Kürütxe bat ezarzü.

burrunba	burrunba	burrunba	burrunda	burrunba	burrunba
burrunba	burrunba	burunba	burrumba	burrunba	burrunba
burrunba	burrunba	burrunba	burrumba	burrunba	burrunba

4 - Lot itzazü erranahi bereko hitzak.

izigarriko üzberra	*	* iraili
burrunba	*	* animaleak
üzkaili	*	* animaleko üzberra
kabaleak	*	* herots handia





Idatz ezazü.

1 - Hitzak idatz itzazü marrazkiaren pean.



Handwriting practice lines with three dots for starting points.



Handwriting practice lines with three dots for starting points.

2 - Hitzak bereix itzazü erranaldi baten egiteko.

Lantareekelürrazilatzendüeelkitzeko.

Handwriting practice lines.





Osotzeko, hitzak haüta itzazü eta erranaldi berri bat idatz.

bedatsean / janariaren txerka / orai

[illegible]

Marrazkia egizü.



Hizkuntza iker ezazü.

Noiz? delarik.

Hartzak üzberra egiten **düalarik**, Antton erorten da.

Noiz erorten da Antton?

Antton erorten da, hartzak üzberra egiten **düalarik**.

Noiz soinean ezarten düzü berokia?

Berokia soinean ezarten dü, hotz egiten

Noiz heltzen da bedatsea?


Bedatsea heltzen da, negüa ürrentzen

Noiz joaiten gira bortüala?

Bortüala joaiten gira, bakantzak

Noiz berotürik da etxea?

Etxea berotürik da, aita süa pizten





Irakurketan treba zite.

tt

Antton - Mattin - Kattin - Bettan - ttunttuna - pottoka

potta - ttipi

1 - Osot ezazü gaineke hitzer so egitez.

Ene anaiari poa eman deiot.

Be.....anekun.....una eta txülüla

joiten dütti.

Ita.....inek An.....on maite dü.

Larruneko po.....okakpi dira.

2 - Erranaldi bat haüta ezazü, marrazkiaren egiteko.



Hartzaren txintxa

(laugerren zatia)



Jente güziak etxerik lasterka eta oihüz jelkitzen dira:

- Hartzak üzkerria egin dü! Bedatsearen txintxa da! Negüa, hotza eta ülüntarzüna ürrentü dira! –oihüstatzen dü batek.
- Negüko gaitz güziak erra ditzagün! –dio beste batek.
- Eta süiaren üngürüan dantzan eta kantan ari gitean! –erran dü hirugerrenak.

Ordüan Antton txütitzen da, hartza esküz agurtzen dü, eta boztariotan, herritik horra den besta giroko aranari jarraikiz, etxenko bidea edireiten dü.





Testua entelega ezazü.

1 - Üngüra ezazü gorriz lehen herritarrak erraiten düana.
Üngüra ezazü urdinez bigerren herritarrak erraiten düana, eta berdez hirugerrenak erraiten düana.

2 - Herritarrentako hartzaren üzberra zer da?
Kürütxe bat ezar arrapostü xüxenean.

Hartzaren sabeleko mina.

Bedatsearen txintxa.

Ülüngüa bezalako herotsa.

3 - Kürütxe bat ezarzü ipuinaren llabürpen egokian.

☐

Antton egürkara doa eta oihanean galtzen da. Elür tenpestan ebiltan delarik, harpe bat edireiten dü.
Sartzen da eta hartz baten biloen artean lokartzen da.
Biharamenean hartza beti lo da eta Anttonek ekiari esker etxenko bidea edireiten dü.

☐

Antton egürkara doa eta oihanean galtzen da. Elür tenpestan ebiltan delarik, harpe bat edireiten dü.
Sartzen da eta hartz baten biloen artean lokartzen da.
Biharamenean hartza iratzartzen da eta ikaragarriko üzberra egiten dü. Üzkerrak bedatsearen hatsarrea erakusten dü.



Txerka ezazü

1 - Lot itzazü erranahi bereko hitzak.

boztariotan	*	* ezkila ttipia
oihartzüna	*	* izigarri kontent
txintxa	*	* egür txerkara
egürkara	*	* hedatzen den herotsa





2 - Zonbat hitz bada peko erranaldian?

Jente güziak etxerik lasterka eta oihüz jelkitzen dira.



Idatz ezazü.

1 - Hitzak idatz itzazü marrazkiaren pean.





dü. / Azkenean / potikoak / bidea / hartzari / etxenko /
edireiten / esker /

[illegible]

Negütiklandabedatseahorrada.

[illegible]



Idatz ezazü.

4 - Erranaldia osot ezazü, bidean Anttonek ikusten düanaren asmatzez.

- Hartzak üzberra egin dü! Bedatsearen txintxa da! Negüa, hotza eta ülüntarzüna ürrentü dira! –oihüstatzen dü batek.
- Negüko gaitz güziak erra ditzagün! –dio beste batek.
- Eta süiaren üngürüan dantzan eta kantan ari gitean! erran dü hirugerrenak.

Etzenko bidea hartzen düalarik, oihanean Anttonek

Marraskia egizü.



Hizkuntza iker ezazü.

Erranaldi batek erranahi bat badü.

Erranaldi bat hizki handiz hasten da eta püntü batez ürrentzen.

1 - Erranaldi bat delarik, hizki handia eta püntüa ezar itzazü.
Erranaldi bat ez bada, kürütxe bat ezar ezazü gainetik.

- sagarroiak lo dira negüan
- ürxaintxak negüan
- ürxaintxak habia goxo bat egiten dü
- ekia agertzen da
- ekia eta odeiak
- papogorria oihanean
- elürqa gri da

2 - Erranaldiak bereix itzazü eta hizki handia eta püntüa ezar. Gero kopia itzazü.

goiz hontan dena xuri zen herrian lagünek elürrezko gizona

egin düğü

[illegible]



Irakurketan treba zite.

1 - Ondoko hitzetan [oi] gorritz üngüra ezazü eta [ai] urdinez.

gaitz - oihüz - oihana - oihartzüna - alaitarzüna

oihala - oiloa - aizea - aitzina pika - bai - sagarroia

2 - Taula osot ezazü gaineke hitzez.

[illegible]



Kabalak negüan



Testu dokumentala iker ezazü

1 - Zoin da dokümentü honen izenbürüa? Heben idatz ezazü.

2 - Zoin dira aipatzen diren kabaleak? Taula osot ezazü.

Kabaleen izenak



3 - Zure ustez oihaneko txoriek zer egiten dñe negüan?
Marrazkia egin.

2 Txülinna



(lehen zatia)

Ñeñea sortü zelarik aitetamak mündüko bürasorik irusenak ziren.

- Hau mündüko neskatxunarik ederrena da! – erran züan amak.
- Hau mündüko neskatxunarik galantena da! – erran züan aitak.
- Gure alabari mündüko izenik goxoena ediren behar deiogü – gehitü züan amak.

Eta txerkatzen hasi ziren.

Ahozkatzean, arragazko hontto baten gozoa behar züan.

Entzütean, ostoen arteko aize eztiaren firfira behar züan.

Ikustean, letra biribiltüen marrazkiak, margolan baten ederra behar züan.

Txülinna, Txülinna

- Txülinna deitüko dügü! – erran züan amak.
- Txülinna, mündüko izenik ederrena! – erran züan aitak!

? Testua entelega ezazü.

1 - Zoin da ipuin hatsarreko gertakari handia?

2 - Gain-marrazalez igaran itzazü amak erraiten dütüan hiru erranaldiak. Üngüra itzazü aitak erraiten dütüan bi erranaldiak .

3 - Kopia ezazü heben aitak erraiten düana. Harridürazko ikurak ez ahatz (!).

4 - Lot itzazü erranaldi egokiak.

Izenak izan behar züan:

Ahoskatzean * * ostoan arteko aize eztiaren firfira.

Entzütean * * hizki biribiltüen marrazkiak margo baten edertarzüna.

Ikustean * * arragazko hontto baten gozoa.



Txerka ezazü.

1 - Zonbat harridürazko ikur (!) bada zati hontan?

Harridürazko erranaldiak irakur itzazü doinüaren emaitez.

2 - Lot itzazü ber erranahiko hitzak.

irus	*	* aize goxoa
galanta	*	* hizkia
aize eztia	*	* karana
letra	*	* zoriontsü

3 - Irakur ezazü berriz lehen erranaldia. Zonbat hitz dira?



Idatz ezazü.

1 - Hitzak libra itzazü erranaldi baten egiteko.

Aitetamekizenederraatzamandüe.

2 - Silaba horiekin hiru hitz idatz itzazü.

ma ikus hain e ki rratz i garri

3 - Txülinä izena maite düzüa? Idatz heben maite düüzün
beste hiru izen.

Egin ezazü Txülinä-ren marrazkia.

Ni nintzan Zü zinen
Hura zen Gü ginen Hurak ziren
Züek zinden



Hizkuntza iker ezazü.

Hau mündüko neskatxunarik ederrena!



Osot ezazü:

- Ikastolako gelarik handi _____ da.
- Herriko etxerik ttipi _____ da.
- Ene kanberako txostagailü _____ ederrena da.
- Mündüko izen _____ eztiena da.

Erranaldiak osot itzazü aditz horiekin:

zen - nintzan - zinen - ginen - zinden

- Ni Baionan sortü _____
- Gü igaran urtean ama eskolan _____
- Bakantzetan ene anaia üdaleküala joan _____
- Zü lehenago ena lagüna _____
- Züek herriko bestetara bizikletaz jin _____






Irakurketan eta idazketan treba zite


1 - Üngüra itzazü tr düen silabak:

letra - treina - artoa - traktürä - ertaina -
hurtü - tronpeta - trikitixa

2 - Idatz ezazü marrazkien pean.



M n b
P k
u j o





(bigerren zatia)

Txülinna handitü zen eta bere izena hanitx maite züan: erraitea maite züan, entzütea maite züan, ikustea maite züan.

Denbora igaran zen. Hiru urteak üken zütüalarik eskolalat joan zen.

Lehen egünean, andereñoak izena galtegin zeion. Neskatxuna txütitü zen, eta bürgoi ihardetsi züan:

– Txülinna!

Ordüan haur güziak erriz eta trüfaz hasi ziren:

– Zer izen bitxia! -erran züan batek.

– Zer izen erri egingarria! -erran züan beste batek.

– Zer izen xoxoa! - gehitü züan hirugerrenak.

Eta denak erri karkazaz hasi ziren.

Txülinna, afruntüak hartürik, nigarrez hipaka hasi zen.



? Testua entelega ezazü.

1 - Idatz ezazü heben non iragaiten den erakusten düan erranaldia.

2 - Gain-marrazalez igaran ezazü hiru hurrek erraiten düena. Irakur itzazü berriz botzaren altxatzez ürrentzean (! ikur honekin).

? Testua entelega ezazü.

3 - Erranaldia osot ezazü hitz egokiekin.

hipaka

karkazarz

Filmaren ikustean erri

hasi niz.

Erori zira eta nigarrez

hasi zira.

4 - Kürütxe bat ezar arrapostü xüxenean.

- Eskola hastean Txülinak hiru urte zütüan.
- Neskatzunak ahapetik erran züan bere izena.
- Ikasleak eskü zartaz hasi ziren.
- Txülinä gaitzitä zen eta nigarrez hasi.

Xüxen	Oker
Xüxen	Oker
Xüxen	Oker
Xüxen	Oker





Txerka ezazü.

1 - Kopia ezazü heben bigerren erranaldia.

2 - Ber erranahidün hitzak idatz itzazü
(testuaren lagüngoia har ezazü).

fier zen:

nigarrez hurtü:

3 - Harridürazko zonbat ikur (!) bada zati hontan?

☐

Zonbat personaje mintzo da?

☐



Idatz ezazü.

1 - Erranaldia osot ezazü ondoko zerrendan hitz baten haütatzez.

tristeki - oihüz - ahapetik - bürgoi - botzik

Txülinä txütitü zelarik, bere izena erran züan.

2 - Hitzak libra itzazü erranaldi baten egiteko.

Haurgüziaktrüfatzendira.

3 - Irakur ezazü ondoko erranaldia eta asma ezazü
haurrek erran dezakeiena.

Ordüan haur güziak eskü zartaz hasi ziren:

Marrazkia egin ezazü.



Hizkuntza iker ezazü.

Amak aitari pott bat eman zeion.
Nik lagünari gütün bat igorri neion.

1 - Osot ezazü:

- Txakürrak gatüari janaria ebatsi
- Gatüak sagüari bizkarra aztaparkatü
- Nik amari askaria galtegin
- Peiok Mattini ostikata bat eman
- Nik Amaiari enekin txostakatzez galtegin

2 - Arrapostü eman ezaiozü galtoari.

Nori eman zeion gazna aitak?

Aitak _____ eman zeion gazna. (sagüa)

Nori erran zeion jitez amak?

Amak _____ erran zeion jitez. (haurra)

Nork erran zeion isiltzez Elaiari?

Elaiari _____ erran zeion isiltzez. (erakaslea)





Irakurketan eta idazketan treba zite.

1 - Ereduko silaba üngüra itzazü.

pla letra - plaza - flakü - janari plata - apaltü

tre tresna - perestü - trebe - prezioa - plegatü

tra plaza - letra - traktürra - trikota - traba


2 - Osot ezazü tra edo pla-rekin

_____za

le_____

_____ktüra


_____ta





Idatz ezazü.

3 - Hitzak idatz itzazü marrazkiaren pean.



Handwriting practice lines with three starting dots for the words corresponding to the illustrations above.



Handwriting practice lines with three starting dots for the words corresponding to the illustrations above.



Handwriting practice lines with two starting dots for the words corresponding to the illustrations above.



(hirugerren zatia)

Neskatxunaren izenaren entzütearekin, haur güziak trüfaz hasi ziren.

Andereñoak pott bat eman zeion eta arbelean idatzi züan:

Txülinä.

Behin eta berriz haur güziek izena arrapikatü züen.

Txülinä, Txülinä, Txülinä

Eta erraitean, arragazko hontto baten gozoa senditü züen.

Ostoen arteko aize eztiaren firfira entzün züen.

Hizki biribiltüen margo ederra ikusi züen.

Txülinä mündüko neskatxunarik irusena izan zen.




Testua entelega ezazü.

1- Ipuinaren llabürpenari zonbaki honak ezar itzazü eta ments diren marrazkiak egin.

☐

Neskatxunaren izenaren entzüteari haur güziak erriz eta trüfaz hasi ziren.


☐

Ñeñea sortü zelarik, aitetamek izen ederra atzaman behar izan zeioen.


☐

Haurrek izena eijerki errepikatü züen eta Txülinä irus izan zen.



? Testua entelega ezazü.

2 - Ezar ezaiozü kürütxe bat arrapostü xüxenari.

Ürrentzean gelako haurrek neskatxunaren izena gustüko züen:

haur baten ahizparen izena delakoz.

☐

Arrapikatzez eta arrapikatzez goxo üdütü zaielakoz.

☐

Andereñoak eijer zela erran düalakoz.

☐

🔍 Txerka ezazü.

1 - Zonbat aldiz idatzirik da Txülinä testuan?

☐

2 - Kopia ezazü heben bigerren erranaldia.

3 - Lot ezazü erranahi hüllanenari.

Txülinä mündüko neskatxunarik irusena izan zen.

☐

Neskatxuna oso
botzik zen.

☐

Neskatxuna mündüko
galantena zen.

☐

Txülinä neskatxunarik
eijerreña zen.





rro a ri xu sa

This image shows a single sheet of white paper with horizontal ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins, text, or other markings on the paper.



Idatz ezazü.

3 - Treba zite hizki handien idazten.

X

Xixcaria

S

Sagüa

T

Txülinä

J

Jrus



Ene lagünek arroskilla bat egin züen.



Irakurketan eta idazketan treba zite.


X eta S

1 - Taula osot ezazü.

neskatxuna - xerri bat - xahatü - sügea - ikusi dü
xorrotxa - xoxoa - xatarra - ikasi dü - sorgina - sagüa
kexü - süia - südürra - esküak - hasi da - hasperena

[illegible]

2 - Hitzak idatz itzazü marrazkiaren pean.





Mündüko haurrak

1 - Kola itzazü mündüko kartan haurren eta beren erresumen etiketak.

[- - - - -]
| **Fu-si** TXINA |
[- - - - -]

[- - - - -]
| **Aponi** ALASKA |
[- - - - -]

[- - - - -]
| **Doka** ESLOVENIA |
[- - - - -]

[- - - - -]
| **Laina** NAMIBIA |
[- - - - -]

[- - - - -]
| **Neith** EGIPTO |
[- - - - -]

[- - - - -]
| **Abraao** BRASIL |
[- - - - -]

Zure izena eta Eüskal Herria ere kolatzen ahal dütüzü.

[- - - - -]
| EÜSKAL HERRIA |
[- - - - -]





Ene familia

Zühaintze hontan zure familiako kideen izenak (edota argazkiak) ezar itzazü.

Aitañi Amañi Aitañi Amañi

Aita Ama

Ni eta ene anai-arrebak

3 Ekililia

Ekililia

(lehen zatia)

Ordüan loskoko hurean bere itxürari so egin zeion eta nigar bat isuri zitzaion.

– Animaleko бүрү itsusia дүт.

Bürüa ttipiago banü, bitxililiak bezala!

Biharamenean, laboraria jin zelarik, ez zen güti harritü! Ekililiaren nadi püntan,


lili ttipi ttipi bat bazen!

– Zer egin düzü бүрүан зүнүтүан petala eta lilitto ederrez?

Bihar lehen bezala ikusi nahi zütüt!

Eta kexü joan zen.

Ekililiak, tristeki, laborariak errana honartü züan



? Testua entelega ezazü.

- 1 - Igaran ezazü gain-marrazlez ekililiak erraiten düana.
Üngöra ezazü laborariak erraiten düana.

2 - Kürütxe bat ezar arrapostü egokian:

Biharamenean ekililiak nadi püntan lili ttipi bat badü,

lili ttipi bat bildü beitzüan.

☐

margarita lilia bezala izan nahi beitzen.

☐

3 - Marraz itzazü heben ekililiaren bürüaren kanbioak.



Ipuinaren hatsarrean



biharamenean



lehen bezala
(laborariaren errana)

4 - Lot ezazü erranahi hüllanenari.

Bürüa ttipiago banü, bitxililiak bezala!



Bitxililiak bürüa
ttipiegi dü!



Nahi nüke bitxililiaren
bürü ttipia üken!



Bitxililiaren bürüa
ttipiago da enea
beno!



Txerka ezazü.

1 - Irakur ezazü berriz ekililiak erraiten düana.

Kopia ezazü heben harridüra erranaldia (! - rekin ürrentzen dena).

2 - Zonbat hitz dü azken erranaldiak?



Idatz ezazü.

1 - Erranaldia osot ezazü ondoko zerrendan hitz baten haütatzez.

loriatü - harritü - tristatü - isiltü

Laborariak ekililiaren nadi püntan lili ttipiñia
ikusitü züalarik, zen.

2 - Hitzak bereix itzazü erranaldi baten egiteko.

Laborariak lehen bezala ikusitü nahidü.





Idatz ezazü.

3 - Marrazkiari so egizü eta testua jarraik ezazü.



Ekililiak ez züan bere bürüa maite. Itxusia zela
pentsatzen züan.



Hizkuntza iker ezazü.

Ekililiari nigar bat isuri zitzaion.


Lauki bakoitxetik hitz bat har ezazü bi erranaldiren egiteko.

Amari
Mattini

sagarra
amañi

jin
jin

zitzaion
zaio





Irakurketan eta idazketan treba zite.

Hitzak irakur itzazü eta osot ezazü **ts** edo **tx** idaztez.


itsusia - bitxililia - neskatzuna - zoriontsü - itxüra - otsoa

zorion.....ü - i.....üra - bi.....ilorea - i.....usia

neska.....a - o.....oa

Ekililia

(bigerren zatia)



*Berantago, ekililia ezkongei lilia bezalakoa izan nahi zen:
ez beti ekiari so. Bena laborariak ez züan honartü eta lehen bezala
bilakatü zen.*

Bere itxürari berriz so egin zeion loskoko hurean:

– Lüzeegi niz! Nadia llabürrago banü, mitxoletak bezala!



Biharamenean laboraria hüllantü zelarik, ez zen güti harritü!

Belarren artean ekilili ttipiñi bat bazen!

– Zer egin düzü? Erleek ez zütüe haboro ikusiko! Orai lili berrien egiteko,
zure polena nola hedatüko da? Bihar lehen bezala ikusi nahi zütüt!

Eta kexü gorrian joan zen.

Ekililiak ez zakian zer pentsa; erleen bistan izan nahi zen, bena bere бүрү
torpea ez züan maite, ez, ez eta ez, ez züan batere maite!



Testua entelega ezazü.

1 - Lehen eta bigerren zatian, ekililia zoin lili bezalakoa izan
nahi da? Bi erranaldi idatz itzazü.

Lehen zatian

Bigerren zatian



Testua entelega ezazü.

2 - Gain-marrazlez igaran ezazü ekililiak erraiten düana.

3 - Lot ezazü erranaldi egokiaren egiteko.

* mitxoleta bat.

Harritürik, laborariak ikusten dü:

* ekilili ttipi ttipi bat.

* belar bat.

4 - Erleek ez dūe haboro ekililia ikusten ahalko.

Zure ustez zentako ? Üngüra ezazü testuan hori adierazten düan erranaldia eta kopia ezazü.

[illegible]

5 - Osot ezazü hitz egokiaz.


laborariak

erleak

mitscoletak

Lili berrien egiteko

aziak hedatzen dütü.





Txerka ezazü.

1 - Zonbat aldiz idatzirik da “ez” azken bi herroketan?

2 - Margot ezazü erranahi hüllanena.

Bere бүрү torpea ez züan maite.

Bere бүрү pezüa
ez züan maite.



Bere бүрү koloretsüa
ez züan maite.



Idatz ezazü.

1 - Marrazkien pean lilien izenak idatz itzazü.

mitxoleta - ezkongei-lilia - margarita lilia - arrosa



Handwriting practice lines with a starting dot and a midline dot.



Handwriting practice lines with a starting dot and a midline dot.



A simple line drawing of a bee on a flower. The bee is on the left, facing right, with its head near the center of the flower. The flower is on the right, with a circular center containing small dots and several long, curved petals extending outwards.

Mitscoleta

A cursive capital letter 'N' is shown on a set of three horizontal lines (top, middle, and bottom). The letter starts with a small loop at the top, descends to the middle line, then goes down to the bottom line, forming a vertical stroke. It then curves back up to the middle line, forming a second vertical stroke, and finally loops back to the top line to complete the letter.

Nahi nūke

6

Orai

P

Tolena



Hizkuntza iker ezazü.

Eki lilak margarita liliak **beno** бүрү ttipiagooa dü.

1 - Osot ezazü.

Ekililia, arrosa **beno**
(handia)

_____da.

Zure marrazkia, enea **beno**
(ejer)

_____da.

Bedatsea, negüa **beno**
(ezti)

_____da.

2 - Idatz ezazü erranaldi bat “**beno.....ago**” erabiltez.







Irakurketan eta idazketan treba zite.

Hitzak ediren itzazü peko kontsonante bikoitzekin.

Lagüntzeko marrazkiak badütüzü.

pl

plaza

tr


treina

pr

printzesa

kr

kraskatü



*Ekililia arrosa bilakatü nahi zen bere bihiak pezüegi zütüalakoz.
Bena laborariak ez züan honartü, bihiatarik olio egiten beitzüan.
Ordüan hanitx kexatü zen.*

Lantarea orano haboro ahültü zen eta nigarrez hasi.
Ordüan laborariak entelegatü züan ekililiaren pena. Haren kolera eztitü
zen eta goxoki erran zeion:

– Nik ekililia lehen bezala behar dit,
bihotzean lilitto ederrak dütüalakoz,
ekiaren argitik indarra hartzen düalakoz,
lili goretan erleek murtxatzen düelakoz,
bihiez olio egiten ahal düalakoz.

Horren entzütean, berehala, lantare lüze eta flaküa berriz ekilili eder
bilakatü zen. Eta instant batez ekiari bizkarraren emaitzez, laboriari erriñi bat
egin zeion.

? Testua entelega ezazü.


1 - Ipuinaren bi llabürpen horik irakur itzazü eta kürütxe bat ezar llabürpen egokian.

☐

Ekililiak ez züan bere bürüa maite. Beste lili
bat bilakatü nahi zen. Laboraria harritü zen
bena margarita lilia eta mitxoleta maitatü zütüan.
Ordüan ekililia nigarrez hasi zen.

☐

Ekililiak ez züan bere bürüa maite. Beste lili bat
bilakatü nahi zen. Laboraria kexatü zen eta erran
zeion, zen bezala maite züala.
Ordüan ekililia alageratü zen eta ez zen haboro
itxüratz kanbiatü nahi izan.





Testua entelega ezazü.

2 - Hatsarrean aipatzen den lantarea zoin da?

3 - Gain-marrazlez igaran ezazü laborariak erraiten düan güzia. Galtoari arrapostü emaiteko, laborariaren erranak kopia itzazü heben.

Laborariak zentako behar dū ekililia lehen bezala?

Laborariak ekililia lehen bezala behar dū,

This image shows a single sheet of white paper with horizontal ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins or other markings visible.

4 - Lot segida egokiari.

Horren entzütean, ekililiak erriñi bat
egin zeion laborariari,

* trufatü zelakoz.

* boztü zelakoz.

* tristatü zelakoz.





Txerka ezazü.

1 - Bigerren erranaldia üngüra ezazü. Zonbat hitz dira?

2 - Ber erranahiko hitz multxoak lot itzazü.

Lantarea flakatü zen. * * Liliak bere itxüra berriz hartü züan.

Laborariaren kolera ezitü zen. * * Ekililiaren tristüra.

Ekililiaren pena. * * Lantarea mehatü zen.



Idatz ezazü.

1 - Hitzak libra itzazü erranaldi baten egiteko.

Liliederbatbilakatüzen.

2 - Ürrentzeak asma itzazü.



Nik arrosa maite dütt

delakoz.



Nik mitxoleta maite dütt

delakoz.



Idatz ezazü.



3 - Hizki handien idazten treba zite.

R

S

Sabina


T

Trompeta

U

Urko

4 - Zure üngürüko pertsona edo kabale bat haüta ezazü
eta idatz ezazü zentako maite düzün.





Hizkuntza iker ezazü.

Nik lantare hau maite düt, lilitto ederrak **dütüalakoz**.

Erran dezakezü ere:

Nik lantare hau maite düt, lilitto ederrak **beitütü**.

Arrapostü emaiteko **-lako**z erabil ezazü.

Sabina zentako zure lagüna da?

Sabina ene lagüna da

Zentako maite düzü zure gatüa?

Ene gatüa maite düüt

Arrapostü emaiteko **beita** erabil ezazü.

Urko zentako zure lagüna da?

Urko ene lagüna da

Zentako maite düzü zure txakürra?

Ene txakürra maite düüt





1 - Testu hori zer da? ipuin bat ☐ dokumentü bat ☐

Nola badakizü?

2 - Erranaldiak irakur itzazü eta hitzak güne xüxenean kopia.

kolonia

erle kobaineen

erregiñak


Erleak

bizi dira.

arraultzeak errüten dütü.

Erle talde handi bat,

bat da.



3 - Erle langileek zer biltzen düe lilietan?


4 - Erranaldia osot ezazü, testuaren lagüngoarekin.

Eztiaren egiteko, nektarra

iganarazten

düe eta

pausatzen.



4 Jone atun arrantzan

(lehen zatia)

Azkorria da. Itsasoa anple dago, aize goxo batekin. Ekiaren lehen izpiek hur axala distirarazten d  .   hain ttipien plisti-plasta ezag  n da. Antxetak, oih  z, zel  an   ng  raxkan ari dira.

Itsasontziko kapitaina karraskan ari da tresneriaren prestatzen. Kanaberen harietan am  ak lotzen d  t   eta kesa h  tsak itsasontziko z  b  alat eramaiten.

Artean, Jone beitaren adelatzen ari da : hur ontzian diren txardina biziak zetoetan ezarten d  t  .

Atun arrantzalat abiatzen dira. Itsasontziaren mot  r burrunbak port  ko isiltarz  na hausten d  . Emeki-emeki port  tik h  rr  ntzen dira itsas zabalari b  r  z Jone arrenk  ra da. Arrantzako lehen eg  na d  .





- **Noiz** igaraiten da? Hitza üngüra ezazü eta heben idatz:

- **Non** igaraiten da ? Hitza üngüra ezazü eta heben idatz:

- Zure üdüriko non da ekia zelüan ? Gainen ala pean ? Nola badakizü?

- Lehen hiru herroketako elementü gūziak marraz itzazü.

[illegible]

2 - Bigerren paragrafoan kapitainak egiten düana gain-marrazlez igaran ezazü eta heben kopia.

Blank lined paper for writing.



Testua entelega ezazü.

3 - Jonek egiten düana üngüra ezazü eta heben kopia.

4 - Portütik abiatzen direlarik itsas zabalari бүрүз,
Jone arrenküra da. Zure ustez zentako?



Txerka ezazü.

1 - Margot ezazü erranahi hüllanena.

- Kapitaina karraskan ari da tresneriaren prestatzen.

Kapitainak arrantzako tresnak arraheinki prestatzen dütü.
Kapitainak itsasontzia anpleki prestatzen dü.

2 - Herots horik nork edo zerk egiten dütü? Hitz egokiak alkarri lot.

oihüz * * ühainak

plisti-plasta * * antxetak

3 - Zonbat aldiz idatzirik da «Jone»? (titülüa konta ezazü)

4 - Zonbat hitz bada testuko azken erranaldian?



Idatz ezazü.

1 - Hitzak bereix itzazü eta erranaldia idatz.

Kapitainaitzasontziarenzübüanda.

2 - Erranaldi bat idatz ezazü galtoari arrapostü emaiteko.
Lagüntzeko ondoko hitzak erabil ditzakezü.

güti

hanitx

arrantzatü

bat

atun

Zure üdüriko zer agitüko da arrantzako lehen egün hortan?


3 - Zer ikusten düzü eskülibürüko marrazkian (80. or.)? lhardets
ezazü erranaldien egitez (testuko hitzak erabilten ahal dütüzü).




Idatz ezazü.

3 - Marrazki bakoitxarentako erranaldi bat idatz ezazü.

Lagüntzeko hitzen kützak erabil itzazü







itsasontzia
kapitaina


portütik
itsasontzian
itsas zabaleala

doa
elkitzen da
dago




Hizkuntza iker ezazü.

Itsasontzian	NON?	itsasontzietan
--------------	------	----------------



Arrapostü emazü erranaldi batez.

- Non dira arrainak?



- Non dira txardinak?




- Non dira amüak ?



Jone atun arrantzan

Bigerren zatia



Jone atun arrantzan

(bigerren zatia)

Jone arrenkūra da beitaki atunak izigarri lodi direla eta altxatzeko ez düala kapitainak bezainbeste indar.


Bat-batetan kapitainak oihü egiten dü:

– Hor dira! Atunak hor dira!

Motürra ehaiten dü. Isiltarzüna nausitzen da. Itsasontziak hurean egiten düan plisti-plasta baizik ez da ezagün. Kapitaina eta Jone hur axalari so dira: itzal beltz handi bat ageri da hurpean. Atun sarda batek egiten düan itzala da.

Ordüan biak lanari lotzen dira. Jonek zeoetan den beita bizia hurealat urtukitzen dü, atunen hüllantarazteko. Kapitainak, kanaberak hartürik, Joneri bat eman eta berehala amüaren igorten hasten da. Arrainak jauziz ari dira, txardina biziak atzaman nahian.

Gure bi arrantzaleek, kanaberak behin eta berriz urtukitzen dütüe. Kapitainak atun bat altxatzen dü eta zübüan üzten, gero beste bat eta orano beste bat!





1 - Arrapostü xüxena üngüra ezazü.

- Oker

2 - Testua osot ezazü hitz horien idaztez.

Ondotik - Lehenik - Azkenik - Geroxago


_____ kapitainak motürra ehaiten dü.

_____ Jonek beita bizia hureala urtukitzen dü.

_____ kapitainak kanaberek partekatzen dütü.

_____ kapitainak atunak atzamaiten dütü.

Hitz horik denboraren ardatzean idatz itzazü.





Txerka ezazü.

1 - Ber zentzüko hitzak ber koloreekin margot itzazü.

ontzittoa

arrenküra

anple

itsasontzia

ekürü

inkiet

igorten dü

urtukitzen dü

atun taldea

atun sarda

2 - Bigerren herroka gain-marrazlez igaran ezazü eta doinüaren
emaitez irakur ezazü. Nor mintzo da?

3 - Hitz horik testuan txerka eta üngüra itzazü:


Bat batetan – Ordüan – Berehala

Zer erran nahi düe? Üngüra ezazü arrapostü egokia.

Non agitzen den

Noiz agitzen den

Zer agitzen den






Idatz ezazü.

1 - Kopia ezazü testu ttipi hori hizki handien eta püntüen ezartez.


arrainak beitarren jateko hüllantzen dira ordüan kapitainak amüa
urtukitzen dü

Handwritten practice lines for the first exercise.

2 - Hitza idatz ezazü marrazkiaren pean.



Handwritten practice lines for the second exercise, corresponding to the first row of illustrations.



Handwritten practice lines for the second exercise, corresponding to the second row of illustrations.



Handwritten practice lines for the second exercise, corresponding to the third row of illustrations.



Idatz ezazü.

3 - Asma ezazü ipuinaren segida. Zer egiten dü Jonek?

... Kapitainak atun bat altxatzen dü eta zübüan üzten, gero beste bat eta orano beste bat!

Jonek

4 - Konta ezazü arrantza egün bat itsas zabalean, itsasbazterrean edo errekan (marrazkiak ikus eskülibürüko 84. or.).



Hizkuntza iker ezazü.

Zer urtukitzen dü hureala?

Hureala zeoetan **den** beita bizia urtukitzen dü.

Alkarrekin joaiten direnak lot itzazü.

Portütik elkitzen den itsasontzian *

* jateko hon dira.

Zelüan diren antxetak *

* lodi da.

Kapitainak atzaman düan atuna *

* oihüz ari dira.



Itsasoan diren arrainak *

* Jone eta kapitaina badira.

NORAT?

hondartzalat

hondartze**tarat**




Norat doatza antxetak?

(botxüak)

Norat joan dira erleak?

(kobainak)



Jone atun arrantzan

(hirugerren zatia)

Jonek atun lodi bat hartü dü kanaberaren mütürrean, bena arraina jauziz ari da eta kanabera iharrausten dü. Jonek kanabera indar güziez etxekitzen dü. Izerditan da. Atuna pezüegi da eta ezin dü eraiki. Itsasontzitik behera okertzen da, zankoak txilintxau dütü, itsasoko hurak eta arrainak gero eta hüllanago dira...

Bat-batetan eskü indartsü batek bizkarretik atzamaiten dü.


Kanaberek begitartea joiten deio; tanpez gibel erorten da itsasontziaren barnerat eta kapitaina zabal-zabala haren gainera!!

Ordüan, biak бүрүнгүрү txütitzen dira.

— Arrantzale ofizioaren ikasten ari zira, Jone! — dio eijerki kapitainak.

Harridüra horren ondotik, portüala бүрүз үтзүлтzen dira. Jone baketzen da etxeak hürrüneala agertzen direlarik.

Bena ez du sekülan ahatzeko atun arrantzako lehen egün hori.






Testua entelega ezazü.

1 - Ezar ezazü kürütxe bat erranaldi egokietan.

- ☐ Atuna lotzen da Joneren amüan.
- ☐ Jonek atuna altxatzen dü.
- ☐ Jone hureala erorten da.
- ☐ Kapitainak Jone atzamaiten dü.
- ☐ Ürrantzean Jone anpletü da.



2 - Arrapostü emazü..

“... eskü indartsü batek bizkarretik atzamaiten dü.”

Noren esküa da?

Noren bizkarra atzaman dü?

3 - Zonbat itzazü erranaldiak testuaren ordenean.

Kapitainak Jone salbatzen dü.

☐

Jonek ezin dü atuna altxatü.

☐

Atuna lotü da Joneren kanaberaren mütürrean.

☐

Jone itsasoala erorteko püntüan da.

☐

Anpletürrik, portüala ützültzen dira.

☐



Testua entelega ezazü.

4 - Ipuin osoaren llabürpen honaren ondoan kürütxe bat ezar ezazü.

☐

Jone eta kapitaina arrantzala doaz. Itsasontzian kanaberek eta beita adelatzen dütüe eta isiltarzünean abiatzen dira. Atunak hüllantzen direlarik, ezin dütüe arrainak altxatü eta biak gibelazka erorten dira. Harridüra horren ondotik, portüala ützüli dira, arrainik gabe bena lasaitürik.

☐

Jone eta kapitaina arrantzala doatza. Kanaberek eta beita adelatzen dütüe itsasontzian eta isiltarzünean abiatzen dira. Atunak hüllantzen direlarik, kapitainak atun hanitx arrantzükatzen dü. Bena Jone ez da aski azkar atunaren altxatzeko eta erorteko püntüan da. Behar ere kapitainak salbatzen düala ! Azkenik portüala lasaiki ützültzen dira.



Txerka ezazü.

1 - Ber zentzüko hitzak lot itzazü.

beldürra * txilintxau * pezüegi * indartsü *

sobera pezü * lotsa * azkar * dilindan *

2 - Kopia ezazü heben «*Bat -batetan*»-ekin hasten den erranaldia.



Idatz ezazü.

1 - Marrazki bakoitxarentako erranaldi bat idatz ezazü.





2 - Marrazkietarik abiatzez, beste ürrentze bat asma ezazü.

Hitz kütxa balia dezakezü (eskülibürüko 88. or.).

Jone itsasontzitik behera okertzen da, eta hureala erorten...

igeriska
beharrere
salbatü
flotagailüa
kapitainak






Hizkuntza iker ezazü.

– “Ez **niz** aski azkar!” –dio arrantzaleak.


Peko hitzekin osot ezazü.

zira - da - niz - dira - dügü - dü - düe

- Zü arrantzale hona
- Gük arraina maite
- Ni atzo hondartzalat joan
- Kapitaina azkar
- Kapiteinak kanabera etxekitzen
- Atunak jauziz ari
- Gure bi arrantzaleek arrantzü hona egin



itsas belarretik	NONTIK?	itsas belarretarik
------------------	---------	--------------------




Nontik elkitzen dira arrainak?

(itsas belarrak)

Nontik hartzen dū beita Jonek?

(zeoak)





Itsasbazterretik

1 - Zonbat titulü edo izenbürü dira dokümentü hontan?
Idatz itzazü.

2 - Zer da enbata? Kürütxe bat ezar arrapostü xüxenari.



odei bortitza




aize bortitza



ülüngü bortitza

3 - Erakuts ezazü, gezi batez non den lühertza argazkian.



4 - Argazki bakoitxaren pean idatz ezazü izena.

belaontzia - *arraste-ontzia* - *txalupa*

Richard Tanguy




Jamie



JeanbaptisteM



5 - Itsaski horien ikusi ahal izateko, nori lot zintiro, lehen argazkiari edo bigerrenari ? Erakuts ezazü gezi batez.



karramarroa



izkira



itsas-karakoila



Frédéric Bisson



Patrick Janicek

6 - Idatz ezazü heben zentako.

7 - So egin izaiezü arraheinki bi argazki horier. Zer dü gibelean arraste-ontziak? Zure üdüriko nola arrantzatzen düe?



Richard Tanguy



© Jose Arocena



düan bidea konta ezazü hitz horien erabiltez:

This image shows a single sheet of white paper with horizontal ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins or other markings visible.

z - giltzotsa

9. or.: ezpata - gizona - bizikleta - züzülüa
gaztaina - izurdea - zaldia - zapatak
bizikleta - azia - zezena - zelüa
zamaltzaina - zaldia - aztia - aztaparrak

11. or.: zarea - izurdea - bizikleta
zezena - zaldia - azia

x - giltzotsa

19. or.: axeria - xistera - axuria
kexü - xoxoa - ogi xerra
xabua - xoxoa - xistera

21. or.: axuria - xabua - xoxoa
ogi xerra - xistera - kexü

k - giltzotsa

27. or.: kükia - kanikak - potikoa - esküa
soinekoa - küküsoa - erroak - traktürra
lasterka - küküsoa - kükia - kahaka
kanikak - kükia - traktürra - nota majikak

28. or.: esküa - kahaka - kükia - lasterka

29. or.: potikoa - azoka - kanikak

n - giltzotsa

38. or.: oihana - kanikak - ganibeta - negüa
min dü - mendia - arranoa - banana
banana - oihana - negüa - esnea
zankoa - esküan - jaten ari da - mendia
arranoa - tenorea - min dü - pintseua

39. or.: zezena - banana - ehün
jaten dü - keinüa - pintseua - esküan

l - giltzotsa

50. or.: elürre - lohia - lehioa - ola
erlea - oihala - ebili - labea
eskola - alaia - lepoa - erlea
txirüla - mila - eltxoa - elki
lo da - lodia - zaldia - alaia

51. or.: lohia - oihala - lilia
eztüla - labea - altxorra - erlea

m - giltzotsa

62. or.: inguma - mendia - mertxika - mahaina
ametsa - mainüa - maite - lüma
lüma - ama - mehea - ametsa
moskoa - motoa - tximinoa - mihia
mainüa - maitarzüna - mendia - mandoa

63. or.: mündüa - komitateak - tximinea
mainüa - motoa - mandoa - ametsa

t - giltzotsa

74. or.: tomateak - tekak - aita - autoa - botak
ahatea - teilatüa - aita - tabala - tenisak
artegia - autoa - tomateak - haixtürak
turrusta - teilatüa - edaten - kaniketan

75. or.: artegia - autoa - edaten - teilatüa
tinkatü - gatüa - turrusta

r - giltzotsa

86. or.: bero - ürzoa - arraina
marrazoa - hiru - hartza
kadira - ürzoa - sorgina
sorgina - бүрүа - haria

87. or.: marrazoa - zirkoa - ürzoa
errotta - arbela - orkatza
harria - ordülaria

d/b - giltzotsak

98. or.: izurdea - lodia - ordülaria - diktaketa
odola - dominoak - zaldia - dantzariak
odola - odeiak - mandarina - krokodiloa

99. or.: ardia - titia - zaldia - dantzariak
kaniketan - erditan - edan

100. or.: begiak - telebista - buhatü
bilaxkatü - besoa - erbia -
begilagünak - бүзтана - botza
bizikleta - besoa - bandera

101. or.: begiak - basurdea - besoa - behia
zabaltü - etxaltea - belarra - sorbalda

p - giltzotsa

112. or.: pastetxa - piñuleta - pitxu - polizia
bizarra - telebista - banana - beharria
hipopotamoa - bihotza - txapela
begiak

114. or.: botzik - bihotza - pastetxa - pintseua
telebista - piperra - basajauna

pinguinoa - panpiña- bihotza
laboraria - ezpata

118. or.: erbia - piperra - botzik - potta -
printzesa - potikoa - pastetxa -
papera - pitxu

s - giltzotsa

127. or.: sega - sagarra - arraultzeak - astoa
aztia - südürä - esküa - zankoak
sorbalda ostatüa - ospitalea - sega
lasterka

129. or.: saskia - usuki - eskola - nahasi -
sükaltea eskola - gaztainak - kuskatü
zamaltzaina - askaria - ostatüa
hoztürik

129. or.: usuki - lasterka - esküina - ikusi - süia
herensügea - sega - sükaltea - pentsatü

g - giltzotsa

140. or.: sagarroia - sagüa - kütxa - pinguinoa
giltzak - arkatza - galtzak
lagünak - gorria - giltza - ogia

142. or.: gatüa - gitarra - kantaria - galtzak
orkatza - gose da - argazkia begiak

j giltzotsa

152. or.: jauntsiak - lagünak - josi - kanikak
jinkoa - jarri - jauregia - jaten dü - jarri
joalduna - pelota jo - jeiki - josi

Maketazioa: Pascaline Minella
Argitalpena: Unai Zubeldia
Argitalpen arduraduna: Aines Dufau
Legezko arduraduna: Maite Erdozaintzi-Etxart